


“muga”, aldizkari quisling bat



TXILLARDEGI

Ez da lehenengo aldiz gertatzen. Eta ez azkeneko ere gertatuko. Baina «MUGA» erdal aldizkaria, erdarazkoa izateaz gain, QUISLING ere bada.

Eta horra hor, arronka gisa, azkeneko alearen izenburua: «Identidad vasca: ¿recuperar qué?». Bapo mutilak!

Eta abertzaletasunaren projektua bera lardaskaturik eta usteldurik «saltzen» den mementu honetan, Arzallus-ek berak «toalla» botatzeko unea etorri ote den aitortzen duen mementu honetan, «euzko» kultura egin nahi omen duen aldizkari honek, ziplo, lotsagabekiro, galdera hori botatzen du gure herri salduaren aurrean: «¿recuperar, qué?».

Larunbe nafartarrak berehala ulertu du kakoa: «entrar en esa discusión — como proponen idearios imperialistas y social-imperialistas de todo el abanico sucursalista español — puede significar, en la práctica, aceptar la posibilidad de nuestro no ser». Zeren-eta, gure herria hiru partetan zatitua delarik, gure agintea behin eta berriz murriztua delarik (zergatik «arrojar la toalla» bestela?), gure hizkuntza erabat ukatua eta baztertua delarik, gure ahalmen ekonomikoak ezeztatutik daudelarik, gure herria «pasa acaso por la mayor crisis de su Historia... está muy desintegrado desde todos los puntos de vista» (Caro Barojak berak dionez), eta abar, zertara dator galdera hori?

Erantzuna lerro artean ematen baita: MUGA guztia GAZTELANIAZ dator (eta ez «erderaz», Iparraldean frantsesa mintzatzen baita); eta MUGA-k «errekuperatu» duena, hau baita: Xabier Lete (hiru artikulu), Koldo Mitxelena, Ibarzabal bera, Barandiaran, eta Martín Ugalde, euskal idazkuntzatik atera, eta gaztelaniazko idazkuntzarentzat «errekuperatu». Hori bai!

MUGA-k egina du bere «errekuperazioa»: euskara baztertu, eta «euzko» kultura indartu. Horretan mutilak zarete!

Gainera, «errekuperatu» behar ahal da ezer? Beharbada ez dugu ezer errekuperatu behar... Horra hor orain arte ezagutzen ez genuen jaun horren iritzia: «Avanzar no es recuperar el pasado, sino distanciarse de él. Los pueblos no vienen, van». Zer esan nahi du horrek?

Edo, bide beretik, eta inperialismoaren tesiak berri-kutsuz jantziz: «Vincular nuestra cultura a la llamada «identidad nacional» — término si mal no recuerdo, de moda en el 33 entre las camisas

pardas del mirífico Adolfo— equivale no sólo a destruir cualquier intento razonable de programa, sino también a castrar concienzudamente a quienes lo pretenden»...

Mugica Herzog, Indalecio Prieto, Fraga eta Blas Piñar-ek berak izenpetuko lituztekeen tesi artxi-inperialisten artean, alferrik datoz erantzuna eman duten batzuren: «No se puede hablar de identidad vasca sin hacer referencia de forma inmediata a la existencia de una lengua propia», dio Mitxelena. Edo, bide beretik, eta bestetan baino egokiago Oteizak ere: «Lo más sagrado para nosotros, nuestra lengua, ha sido utilizada para traicionarnos en su verdadera defensa. Lo que era un objetivo de nuestra lucha, la recuperación del euskera, ha sido utilizado como medio». Zer dira garrasi ahul horiek inperialismoaren tesiez itotako itsaso anti-euskaldun horretan?

Azkenean, borondatekeria hutsean agertzen gara abertzaleok MUGA aldizkarian: «Soy de los que piensan — y me es casi indiferente si con razón o sin ella — que no puede haber Euskadi sin euskera... No sé si existen otros rasgos que definan nuestra identidad como pueblo. Es posible que sí, pero me es igual; porque yo desde luego ni lo siento, ni tengo interés en sentirlos», diosku Ibon Sarasolak. Eta, MUGA-ren kakoa sumatuz nunbait: «Al paso que vamos es muy posible — mucho más posible de lo que más de uno cree — que nuestro idioma quede pronto fuera de combate».

Zertarako aipatuko Elorza, Careaga, eta beste askoren iritziak? Denak bat datoz: euskararenak egin du. ETA ZER?

Eta egia da: Santander-ko probintzia Ekialderantz hedatzeko, eta «Norte» be-deinkatu hori egiteko, zer deabrutako behar dugu euskara? «Antena del Norte» delakoa profetikoa da; eta MUGA ere bai.

«Desdramatizatu» nahi, eta hizketatu direnen esanek, halere, lasaipiderik ez dute uzten. Zeren-eta, zergatik dio Caro Barojak lehen aipatu dugun hori: «País que pasa acaso por la mayor crisis de su Historia, y que está muy desintegrado desde todos los puntos de vista»? Heraklito-ren dizipulu izan behar dugula-ta, zergatik «la mayor crisis»? Hemen, P.C.-aren teoria zaharraren arauera, krisirik

ez dago: hemen «arragoa» dago, eta arragoa horretan «la nueva Vasconia» sortzen ari baita... Aspaldiko oihartzunak datoz gure oroimenera!

Eta gure nazio-nortasuna EUSKARA dela aitortu nahi ez-ta, chauvinismorik txoroanean ikusten ditugu kriptoinperialista «berri» horiek: «No cabe duda de que los vascos se diferencian en su FORMA DE SER y en su CONDUCTA de los componentes de otras nacionalidades», dio J. Guimonek. Nola esan daiteke horrelako kitenkeriarik 1980-an? Nor da «euskalduna», hortaz! Dolores Ibarruri ala Aróstegui? Esteban Bilbao ala Beltza? Olarra ala Brouard? Arzalluz ala Argala? Aresti ala Latiegi? Oto!!!

Euskal Herria erabat zatitzen du klase-burrukak, erabat hizkuntz-arazoak, erabat sexu-arazoak, eta abar. Euskal «forma de ser» delakorik ez dago, eta are gutxiago euskal «jokabide»rik. Horietxek bai direla arrazakeria eta chavinismo gorri gorriak!

Ayestaran-en esanei buruz hitzik ez esatea hobe. Erdalzale amorratua, Unibertsitatean baino beste biltoki jendetsuetan ezagunagoa eta istimatuagoa, «pobre enfermo social que es el hombre etnocéntrico» delakoaren kontra isurtzen du bere behazun guztia. Betekizun tristetan benetan, gudarien ekintzak, trabenatatik gaitzesten ausartzea! Baina Marxek egoki ikusi zuenez, «izanaren kontzientzia baino lehenago dator izana»; eta vasco-españolak diren anti-euskaldun amorratuei, hori gertatzen zaie: biografia garbitu nahian, etsaiaren eskuetan jartzen direla. Dudarik ez: Múgica Herzog-ek pozik izenpetuko lituzke «fanático voluntarista, asesino a pesar suyo desde el etnocentrismo»aren kontrako perpaus horiek. Jarrai horrela, eta «printzipea»ren abantailak ez dira luzatuko.

Tajo-tik Iparraldera frantsesez egingo litzateen mementuan, eta Tajo-tik Hegoaldera erabazte berean, España-rik ez legoke. Hau hobeki zekiten Francok eta Indalecio Prietok, eta hobeki dakite kolore guztietako inperialistek, MUGA-ko sasi-intelektualek baino. Eta aski da Tajo-ren ordez Bidasoa jartzeko, euskara galduta zer gertatuko litzatekeen argiro ikusteko.

Betekizun hitsa zinez MUGA-rena.